

Itzulpengiltza: mundura zabaltzeko eta mundua ekartzeko

ITZIAR DIEZ DE ULTZURRUN, ISABEL ETXEBERRIA, IDOIA SANTAMARÍA ETA BEÑAT SARASOLA*

2020ko irailaren 26an, Isabel Etxeberriak, Idoia Santamaríak eta Beñat Sarasolak «Itzulpengiltza: mundura zabaltzeko eta mundua ekartzeko» mahai-inguruan parte hartu zuten, Itziar Diez de Ultzurrunen gidaritzapean, Literaturiak eta EIZIEK antolatuta. Itzulpenak literatura-sisteman duen garrantziaz mintzatu ziren, eta orriotara ekarri nahi izan ditugu solasaldian bildutako hitzak.

ITZIAR DIEZ DE ULTZURRUN: Solasaldi honen abiaburua da *itzulpengiltza* –izenburuak dioenez– giltza oso garrantzitsua dela edozein literatura-sistematara baina gurea bezalako sistema batean, hiztun gutxiko literatura batean, are garrantzitsuagoa dela. Giltza horrek ematen digu aukera kanpoan sortzen dena gure hizkuntzan irakurtzeko; kontuan hartuta gaur egun euskaldun gehienok elebidunak garela, garrantzitsua da aukera hori, jo behar ez izateko ezagutzen ditugun erdara horietara. Gainera, garai batean ez genuen kanpoko izen handiak

erdaretan irakurri beste erremediorik, eta, orain, itzulpenaren bidez, badugu aukera hori; seguru asko ez nahi genukeen bezain zabala eta handia, baina badugu. Bestetik, euskarazko itzulpengintzak gero eta aitor-tza handiagoa jasotzen du. Askotan irakurri izan dugu itzulpenen kalitateak gora egin duela, baina ez dugu hori jasotzen irakurleen aldetik, ez ditugu nahi beste irakurle.

Xabier Olarraren hitz batzuk ekarri ditut. «30 urte eta gero hau. Irauntza ala hil» artikulua argitaratu zuen *Senezen*, eta bertan esaten zuen: «Irakurle-kopurua asko hazi

* Transkripzioa: Irene Barrio Solé.

den arren azken berrogei urteetan, oraindik ez dago behar adina irakurlerik». Irakurle heldurik, gaineratuko nuke nik, badirudielako haur- eta gazte-literaturan gehiago itzultzen dela eta hartzaile gehiago daudela. Abiaburu hori hartuta, galdera eginen nieke solaskideei. Zuen ustez, zergatik gertatzen da hori? Zergatik saltzen da oraindik ere gehiago euskaraz sortutakoa? Izan daiteke euskal idazleek oraindik prestigio handiagoa dutela? Irakurterrazagoak direla? Hurbileko istorioak kontatzen dizkigutela eta, euskaraz irakurtzeko aukera hartzen dugunean, hori balioesten dugula? Giltza badugu, atea ireki dugu, baina irakurleek ez dute ate horretatik guk nahi beste pasatu nahi, beste ate horiek ere zabalik dituztelako –gaztelaniakoa, frantsesekoa...– eta nahiago dutelako ate horiek ireki.

ISABEL ETXEBERRIA: Nik askotan pentsatu dut horren inguruan. Garai batean bazegoen horrelako errezelo bat euskarazko itzulpenak zailagoak ote ziren. Esango nuke gaur egun horrelakorik ez dela, eta gehiago dela ezagutza falta. Kasu batzuetan, bai, behar bada euskal irakurleak erdarara egindako itzulpen hori –gaztelaniara edo frantsesera egindako itzulpen hori– hautatzen du, baina esango nuke badela euskal irakurle mota bat, euskalduna dena, euskal hiztuna dena, euskaraz bizi dena, noizean behin ere euskaraz irakurtzen duena, baina euskaraz irakurtzen duenean euskal idazleen literatura irakurtzen duena, eta, erdarara jotzeko, burutik ere ez zaio pasatzen bilatzen ari den hori edo jaso duen gomendio hori euskaraz egon daitekeenik. Uste dut badagoela ira-

kurle masa handi bat euskal itzulpengintzan zer ari den gertatzen ezagutzen ez duena.

Adibide askotan ikusi dut. Sare sozialetan norbaitek gomendio bat egiten du: «Zenbat ari naizen gozatzen liburu honekin!». Eta gaztelaniakoa –hegoaldekoa bada– erreferentzia bat ematen du. Askotan, itzultzaileen batek –Ana Morales datorkit burura, oso adi egoten delako horrelakoetan– erantzuten dio: «Hori euskaraz ere baduzu argitaratua». Ikusten duzu nor den gaztelaniakoa itzulpena gomendatu duena, eta euskaldun peto-peto bat da. Uste dut badagoela ezagutza falta bat, eta zein da horren arrazoa? Ez nuke esango irakurleen utzikeria denik; argitaletxeek beren lana ikusgai egiten ez dutenik ere ez. Uste dut arazoa askoz orokorragoa, sakonagoa dela: erdarak blaituta bizi garela. Eguneroko bizimoduan iristen zaizkigun erreferentzia gehienak, komunikabideen bitartez, lagunen bitartez, kaleko elkarrizketetan... Gaztelarak eta frantsesak dena hartzen dute. Ez badu jarrera oso konprometitua edo militantea, irakurle askori ez zaio burutik ere pasatzen, «halako titulua interesgarria da» entzuten duenean, pentsatzea: «Lehenengo begiratuko dut hori euskaratuta ote dagoen».

Bestetik, puntu baikor bat ere jartzeagatik, uste dut sortzen ari dela irakurle masa bat euskaraz idatzitako literatura guztia –itzulia zein ez itzulia– maiztasunez irakurtzen duena, eta horrelako taldeetan (irakurle-taldeetan, adibidez) garai bateko errezeloa nahiko gaudituta dagoela. Ziurrenik, garai batean benetan kalitate kaxkarragoko itzulpenak ere egin ziren hasiera batean, euskarak berak oraindik muskulu gutxi zuelako; hiztunen eta irakurleen hizkuntza-gaitasuna

ziurrenik kaxkarragoa zen, eta gaur egun askoz ere hizkuntza-gaitasun handiagoa dute. Eta ziurrenik garai batean oso titulu kanonikoak itzuli ziren Literatura Unibertsala bildumaren lehen urteetan; beraz, ziurrenik obrak berak bazituen bestelako zailtasunak. Gaur egun, askotariko gauzak itzultzen dira, eta horrek ere errazten du.

IDOIA SANTAMARÍA: Ni pixka bat ezkorragoa naiz. Iruditzen zait, batetik, belaunaldi-bereizketa bat egin behar dela: neure belaunaldia eta lehenagokoak. Badago literaturarekin arazo bat. Literaturako liburu asko gaztelaniaz edo frantsesez ezagutu ditugu, eta beranduago ezagutu ditugu euskaraz; beraz, belaunaldi horrek pentsa dezake: «*El gran Gatsby* irakurri nuen nik gaztelaniaz; zer dela eta irakurriko dut orain euskaraz?». Badago belaunaldi-arazo bat, nolabait esateko, eta, neurri batean, normala iruditzen zait. Gaztelaniaz irakurri duenak *El gran Gatsby* zertarako irakurriko du euskaraz? (Ez bada gremioko norbait, eta ikusi nahi badu nola dagoen itzulita).

Beste kontu bat da gazteagoen artean nire ustez gertatzen dena. Zergatik ez dira askoz gehiago iristen gaur egun jada itzulita dauden liburuak eta itzultzen ari direnak –ez bakarrik Literatura Unibertsaleko kanonikoak, beste argialetxe eta bilduma batzuetakoak ere bai– irakurle gazteengana? Nire ustez, hor badago irakaskuntzarekin zuzen-zuzenean lotutako arazo bat. Ez dut esan nahi irakaskuntzak literaturazaleak egin behar dituenik, baina bai irakurleak; alegia, irakurtzen eta ulertzen dakien jendea. Nire ustez, irakurketa, ulermena eta idazketa oso batera doazen prozesuak dira, eta hor arazo

potolo samar bat dago, orain eta aurrera begira. Horregatik esaten dut ezkorragoa naitzela, horrek ere baduelako zerikusirik itzulpena zenbat irakurtzen den ala ez.

Beti dago, bestalde, prestigio-arazoa. Ez bakarrik literaturan, baizik eta gainerako alorretako itzulpengintzan. Egia da hasierako itzulpen-lanetan euskararekin lotutako arazoak zeudela; orduan euskarak muskulu gutxiago zuen, eta akats larri askoz gehiago egiten genituen. Itzulpenak *remora* moduko bat eduki du, seguruenik itzulpena bera askotan garbizaletasunarekin lotuago ikusi dugulako.

Lehengoa batean, Josu Zabaletak *Senezen* idatzitako artikulua bat irakurri nuen; itzulpengintza eta euskararen normalizazioa parean jartzen zituen, eta ordura arte pentsatu ez nuen zeozer aipatzen zuen: hizkuntza guztietan gertatu da itzulpena garbizaletasunari lotuago egotea. Batetik, kontaktuak berak egin duelako maileguekin prebentzio handiagoa izatea, interferentziei beldurra izatea, eta abar. Hizkuntza guztietan gertatu da prozesu hori. Guri zuzen-zuzenean eragin digu. Benetan gertatutako arazo horren aurreiritzia ez dugu gainetik kendu oraindik. Hori kentzeko modu garbi bat da irakurle gazteak ere mundu horretara ekartzea, ikus dezaten benetan nolako aurrerapenak egin diren itzulpengintzan oro har –ez dut uste literaturan bakarrik ikusten denik; administrazioko euskara mordoilo horretan ere aurrerapauso handiak egin dira–; baina masa kritikoa falta dugu, irakurtzen duen jendea falta dugu. Ez dakit, gainera, euskararen arazoa den, ez baitakit gaztelaniaz gaur egun zenbat irakurtzen den. Arazo bat

daukagu itzulpengintzarekin lotuta, baina itzulpengintzatik aurrerago ere badoana.

BEÑAT SARASOLA: Nik hain justu horri heldu nahi nion, baina beste ikuspuntu batetik. Xabier Olarrak, artikulu batean, nahiko zirikatzaile, galdetzen zuen ea zergatik irakurtzen diren askoz gehiago euskal idazleak itzultzaileak baino. Nik zalantzan jarriko nuke baieztapen hori. Iruditzen zait badirela euskal idazle gutxi batzuk asko saltzen dutenak konparazioan, baina euskal idazleen gehiengoak ez duela itzultzaileek saltzen duten baino askoz gehiago saltzen. Zebakiren bat ekarri dut, eta, gutxi gorabehera, Poesia Kaierek berrehun bat ale saltzen dituzte batez beste –kasu berezia da, harpidedun bidez funtzionatzen dutelako, eta hori ere aipatu beharko genuke–, baina horretaz aparte esango nuke euskal poeta askok berrehun, hirurehun ale baino askoz gehiago ez dutela saltzen. Egongo dira gutxi batzuk gehiago saltzen dutenak.

Nik uste hori ere mahai gainean jarri behar dugula, arazoa orokorragoa delako –Idoiak aipatzen zuenarekin lotuta–. Nire galdera da: zenbat literaturazale dago? Eta horietatik, zenbatek du euskaraz erraztasunez irakurtzeko gaitasuna beste hizkuntzetarako erraztasun berarekin? Gutxi garela uste dut, eta esango nuke euskal literaturazaleak –euskaraz sortzen duten idazleak irakurtzen dituenak– itzulpenak ere euskaraz irakurtzen dituela gaur egun. Atxagak 1.200 eta 1.300 artean kokatzen zuen euskal literaturazaleen kopurua. Horren bueltan ikusten dut nik ere, eta uste dut irakurle horrek gaur egun itzulpena euskaraz irakurtzen duela eta euskal idazleak ere irakurtzen dituela. Bada-

go gero beste masa handi bat oso irakurzalea ez dena, eta euskaraz bizpahiru liburu irakurriko dituenak –normalean itzulpenak ez dira izango– eta segur aski gero beste liburu batzuk irakurriko ditu gaztelaniaz (Hegoaldekoa baldin bada; Iparraldekoa bada, frantsesez).

Hemen erronka nagusia izango litzateke euskarazko irakurleak eta literaturazaleak formatzea, eta nire generazioan ikusten dut, gutxi gorabehera, literaturazalea denak eta euskaraz irakurtzen duenak itzulpenak ere irakurtzen dituela –irakurle-taldeetan aktiboak diren irakurle horiek, esaterako, Isabellek esan duen bezala–.

Olarrak artikulu horretan aipatzen zuen Igelan hasieran 2.000ko tiradak egiten zizutela, gero jaisten joan zirela, eta gaur egun 1.000ko buelta horretan daudela. Esango nuke gaur egun batez bestekoan dagoen euskal idazle bat buelta horretan ibiltzen dela. Zehaztapen hori egin nahi nuen lehenengo puntuan. Nire ustez, problema zabalagoa da.

IDOIA SANTAMARÍA: Nik gauzatxo bat erantsi nahiko nuke. Egia da baita ere batzuetan ahaztu egiten zaigula gure neurria zein den. Lehenengo batean, Hasier Etxeberriak 2002an idatzi zuen liburu hartan –bost idazlerekin jasotako elkarriketak–, atentzioa eman zidan Saizarbitoriak esaten zuen zerbaitek, eta 2002an da; alegia, hamazortzi urte pasatu dira gutxienez harrezkeroztik. Berak esaten zuen –kasu honetan, idazleei buruz, ez itzulpenei buruz, baina neurria har dezagun–: «Euskaraz irakurtzen duen jende kopurua milioi erdia baldin bagara –eta ez gara–, euskarazko liburu baten 5.000 ale

saltzea –eta nik saltzen dut–, gaztelaniazko liburu baten 300 milioi ale saltzearen parekoa da. Eta gaztelaniaz 5.000 liburu saltzea –ez da jotzen salmenta txartzat– gure artean ehun bat liburu saltzea da». Horrek pentsarazten dizu: «Hori horrela bada, igual hain gutxi ere ez dugu saltzen». Zuk esaten zenituen zenbakiekin lotuz, Literatura Unibertsalekoak ere, ez baldin badira irakaskuntza zirkuituan sartzen –sartzen baldin badira, gehiago saltzen dira–... Egia da Urrezko Bibliotekan agertzen direnak –alegia, lehendabiziko eta bigarren errondan berrargitalpenak izan dituztenak, berrikusita eta abar–, horiek gehiago saltzen direla, baina bestela... Literatura Unibertsaleko hirugarren txandan, adibidez, gehien saldu dena *Frankenstein* da, eta 500 ale saldu dira. Hori sekulakoa da, normalean 100 edo 200 ale artean saltzen direlako gehiengehientsuenak. Saizarbitoriaren adierazpen horiek irakurri nituenean, esan nuen: «Igual ez da hainbesterainoko desastrea gurea ere». Baina egia da, noski, gutxi gara eta.

ITZIAR DIEZ DE ULTZURRUN: Orduan ez dugu zertan hain ezkor izan, ezta? Edo konformaerazagoak izan beharko genuke? Geure buruari gure neurria oroitarazi? Lehengo egunean aditu nion editore bati esanez Espainiako estatuko liburu-produkzioaren % 2 bakarrik dela euskaraz. Orduan, lehia horretan, horrelakoxe neurria dugu. Literatura irakurtzea jardun minoritarioa bada gaur egun, eta zale batek eskura izan dezakeenaren % 2 bakarrik ez badago euskaraz, eta elebidunak baldin bagara, agian poztekoak ere izan daitezke gure salmenta eskasak. Hori ere pentsatu beharrekoa da.

ISABEL ETXEBERRIA: Nik ikusten dudana arazoa da, baikortasun sinboliko baterako zantzuak baldin badaude ere, kopuruak proportzioan, gaztelaniarekin alderatuta, hain txarrak ez badira ere, atzean badagoela hortik bizi den jendea: badira itzultzaileak, badira editoreak, badira enpresak –txikiak, baina badira–, eta ekonomikoki hori sostengatu behar da. Ez digu balio bakarrik esateak ez direla hain kopuru txarrak proportzioan. Horri nolabait irtenbidea eman behar zaio. Nik ez dut erantzunik, baina uste dut gure profesionalen sare hori nolabait beste hizkuntza handiagoetan egiten ez den modu batean zaindu, babestu, mimatu behar dela, eta hor ikusten dut arazo handiena. Bestela, argialetxeak agertu/desagertu *bukle* batean sartzeko arriskuan gaude. Olarrak editorea den aldetik idatzi zuen artikulu hura.

ITZIAR DIEZ DE ULTZURRUN: Guztiz ados. Gainera, ariketa bat egin beharko genuke eta irudikatu zer gertatuko litzatekeen desagertuko balira. Lan handia eta lan militante handia dago gure sistema kulturean eta literarioan, eta literatura-itzulpenetan diharduen jende askok ere desorduetan egiten du lan, eta asmo jakin bat ere badu: literatura-sistema sendotu nahi bat, euskal produkzioa bultzatu nahi bat. Alde horretatik, galdetu nahi nizueke, bai Idoiari, bai Isabeli –berriki aritu zarete literatura itzultzen– ea zuen esperientzia nolakoa izan den. Batez ere mahai gainean jarriko dudalako Lertxundik aipatutakoa: *Berriako* «Itzuliaren itzulian» artikuluan aipatzen zuen itzultzaileek abantaila bat dugula idazleekiko. Itzultzaileen artean komunikazio, elkarlanerako joera eta lankidetzan aritzeko ohitura handiagoa

dagoela. *Senezen* argitaratu berri da azken urteetako literatura-itzulpenen azterketa kuantitatiboa, eta agertzen da literatura-itzulpenen % 8 elkarlanean egindakoa dela. Nire eskarmentuak esaten dit guk beti aurkitzen dugula zalantza edo koska argitzen eta aldapa zelaitzen lagunduko digun norbait, bai itzulpen-lanean ari garena, bai –zeresanik ez– zuzenketan.

IDOIA SANTAMARÍA: Dударik gabe. Niretzat itzulpen-prozesuaren parte oso garrantzitsu bat da beste itzultzaile batzuekin partekatzen ditudan zalantza, obsesio, beldur eta gainerako guztiak. Orain arte itzuli ditudan liburuetan beti sistema bera erabili dut. Adibidez, azkenengoan, Bachmannen ipuinen kasuan, errazagoa zen, bost ipuin direlako. Ipuin bat bukatu ahala, luxuzko talde bati bidali diot. Aipatuta daude, baina Juan Garziari, Maialen Berasategiri, Xabier Olarrari, Beñat Sarasolari... Horiek denek pasatu dute nik idatzitako ipuin bakoitza. Gehi nire Elhuyarreko lankideek, egunero bulegora joaten nintzenean, itzultzen ari nintzen bitartean aguantatu dizkidatenak.

Parte hori izugarri aberatsa da itzultzailearentzat berarentzat, eta pentsatu nahi dut gero irakurlearentzat ere hala dela; alegia, irakurleak azkenean daukan emaitza filtro batetik baino gehiagotatik pasatutako oreka da. Nire ustez, ez dago hori pagatzeko dirurik; horrekin izugarri ikasten da, eta emaitza ikaragarri hobetzen da. Itzultzaileen artean –ez dakit idazleen artean akaso ere gertatuko den– badago nolabaiteko ohitura bat horrelako kontuak partekatzeko, ikaragarri eskertzen dena. Ez dut imajinatzen horrelako itzulpen literario bat galbahe hori pasatu

gabe. Alde horretatik, ikaragarri baliotsua da. Ez dakit idazleen artean ere hori bada-goen.

BEÑAT SARASOLA: Gutxiengoa dela uste dut. Konparazioan, itzultzaileek elkarlanean askoz gehiago lan egiten duzue idazleek baino.

ITZIAR DIEZ DE ULTZURRUN: Beti esaten dugu: itzulpena bakarka egiten den lana da, baina ez gara bakarrik aritzen. Horrek ere erakusten digu apal izaten. Iruditzen zait itzulpen zail baten aurrean berehala ohar-tzen garena ez garena gai izanzen koska guztiak geuk argitzeko, eta, gainera, itzulpenetan ezin dugu tranpa egin, jatorrizkoan agertzen zaiguna eman behar dugulako. Ezin dugu beste esaldi bat proposatu, edo beste egitura bat, edo egokitu, moldatu... Joko-arau estuagoak ditugu idazle batek baino.

ISABEL ETXEBERRIA: Nik antzeko esperientzia izan dudala esango nuke. Itzultzaileok hasiera-hasieratik eta arlo guztietan lanean arituta ohitzen gara zuzenduak izaten eta zuzentzen; beraz, naturaltasun handiz hartzen dugu. Errepaso bat egiten badut non ibili naizen eta zein arlotan (itzulpen-entzesa batean, edo ikasmaterialak...), horren oroitzapena dut guztietan. Zerbait idatzi, eta beti ondokoari pasatzen genion, eta gero ondokoarena zuzentzen genuen. Ikasten duzu errespetu handiz iradokitzen eta errespetu handiz onartzen egiten dizkizuten iradokizunak. Literaturara edo bestelako lan-arloetara salto egiten duzunean, azkeneko, bilatu ere egiten duzu, ezinbestekoa egiten zaizulako laguntza hori.

Bestetik, idazleen artean zenbaterainoko kolaborazioa dagoen-eta ez dut ezagutzen, baina susmoa dut itzultzaileok testuarekin dugun inplikazio emozionala ez dela idazle batek bere sormen-lanarekin duenaren adinakoa. Azken batean, zuk esan duzu, abiapuntua hor duzu eta esaten duzu: «Bueno, hau niri honela ematea bururatu zait, baina zuri ere bururatuko zitzaizun moduren bat, edo ikusiko zenion nireari ahuleziaren edo akatsen bat, lagundu iezadazu». Idazle baten kasuan, nik buru barruan izan dudana ideia, niri, eta bakarrik niri, eta bakarrik momentu honetan, bihar bururatuko ez zaidan ideia horretaz ulertzen dut ego puntu bat izatea eta esatea: «Nor zara zu niri esateko nola heldu behar diodan niri bakarrik eta justu gaur bururatu zaidan sormen-lan honi?». Uste dut apaltasun hori itzultze-lanak berak berezkoa duela.

ITZIAR DIEZ DE ULTZURRUN: Beñat, idazlea zara, baina itzulpen-lanetan ere aritua zara. Hitz egin nahi diguzu zure esperientzia hartaz? *Nemesis* itzuli zenuen...

BEÑAT SARASOLA: Ez dakit gehiegi hitz egin nahi dudana *Nemesis* buruz, ez nintzelako batere gustura gelditu lan horrekin; beraz, era orokorragoan hitz egingo dut. Esango nuke idazleek badugula originaltasunarekin lotuta dagoen karga hori, eta beraiek eta segur aski ingurukoek ere beti erreparo handiagorik hurbiltzen dira testura edo testu-zuzenketetara, historikoki. Nik uste dut hori, zorionez, azken urteetan aldatzen ari dela, eta ingurune literaturazale bat edukitzea idazle batentzat oso garrantzitsua dela, ez bakarrik zuzenketa-kontuengatik,

baizik eta baita literarioak diren kontuak zuzendu eta lantzeko. Hor editoreen figura, adibidez, oso inportantea da, eta oso eskertzekoa da editoreak sartzen direnean testuan, testuaren egituraren... eta ez zuzenketan bakarrik. Agian, tradizioz, hemen ez dugu editore-figura anglosaxoi hori izan, zeina testuan sartzen den, baita egituretan ere, eta abar. Uste dut idazleak hori pixkanaka integratzen ari direla, azkenean modu profesionalago bat delako lan egiteko. Gaur egungo ikuspegitik ikusita, uste dut nahiko erridikulua dela pentsatzea norbera jeniala dela edo berak topatutakoa ezin ukitu daitekeela. Joera geroz eta handiagoa da testuak argitaratu aurretik eta editoreari pasatu aurretik inguruko lagunei pasatzekoa, eta uste dut bide hori egokiagoa litzatekeela. Gauza askotan, idazleek asko ikas dezakete itzultzaileengandik, eta hori da puntuetako bat.

ITZIAR DIEZ DE ULTZURRUN: Ederki. Hirugarren gaiari helduko diogu orain, hizkuntzari lotuago berriz. Maiz samar entzuten da itzultzeak lapitza zorrozten laguntzen duela, eta berriz ere Lertxundi aipatuko dugu, berak idatzi baitzuen *Itzuliz usu begiak* liburuaren «Aholkuak» atalean idazle izan nahi duen bati emanen liokeen aholkua honakoa litzatekeela: «Ezinbestekoa izango du itzulpen asko irakurtzea, eta esango nioke itzultzeko literatura ona». Lizarralde ere Hitzen Uberan-en egin berri dioten elkarriketan esaten zuen itzulpengintzak tresna asko eman dizkiola idazleari, eta nik ere behin baino gehiagotan etzun dut idazle bat goraiatzeko asmoz egindako baieztapen hau: «Igartzen zaio itzultzailea ere badela». Zer iruditzen zaizue? Osagarri izan daitez-

ke bi jardun horiek? Beñat, zu idazle zaren aldetik, iruditzen zaizu zure eskarmentuak balio izan dizula?

BEÑAT SARASOLA: Dударik gabe. Kontua da idazleen artean zer eredu literariotara jotzen duzun. Esango nuke euskal literaturan nagusi den prosa ez dela bereziki konplexua sintaktikoki, lexikoki, eta abar. Horretarako agian ez duzu behar itzultzaileek behar duten aparatua –kontuan hartu euskaraz itzultzen den gehiengo literatur-maila oso altuko lanak direla–. Maila horretako euskal originalak aurkitzea oso zaila da prosaren lanketari dagokionez; orduan, ezinbestez, norbaitek dentsitate jakin bateko literatura idatzi nahi badu, itzulpena jotzeko bidea da aukeretako bat, edo aukera nagusietako bat. Nabaritzen da itzultzaileek hizkuntzarekin egiten duten lana oso handia dela; idazleen gehiengoak egiten duena baino handiagoa, ezinbestez, lan egiten duten testu motarengatik. Nik ere, Anjel Lertxundik esaten zuenaren haritik, uste dut idazle gazte batek literaturaren bidea hartu nahiko balu, hori izan daitekeela aukeretako bat. Irakasle bat izan nuen Bartzelonan ikasi nuenean –Jordi Llovet, nahiko ezaguna, katedratikoa literatura konparatuan–. Lehenengo mailan idazle berri dezente etortzen zitzaizkion –berak literaturaren teoria ematen zuen–, eta galdetzen zioten: «Zer manual irakurri beharko nuke idazten hasteko?». Berak erantzuten zuen: «Zuk egin behar dituzu hiru gauza: bat, literatura ona irakurri; bi, literatura on hori itzultzen hasi; eta hiru, behatu, behaketa landu. Hiru gauza horiekin, hasi idazten, ez hasi manualekin eta horrelako gauzekin». Hiru habe horietako bat, beraz,

itzulpenarena da. Nire ustez, hori edozein idazlerentzat ezinbesteko puntuetako bat da. Nahiz eta gero igual ez duen publikatuko, baina bai.

IDOIA SANTAMARÍA: Ni euskarazko sortzaile bat banintz... Literaturan itzuli diren hain gauza diferenteek baliabide asko ematen dituzte. Segun zer sortu nahi duzun, badaude zenbait gauza jada asmatuta daudenak (egitura-kontuak, eta abar). Adibide bat jartzearen: *Berlin Alexanderplatz* Döblinen nobelan, Antton Garikanok euskaratua –izugarritzko itzulpena eginda, orain dela urte dezente–, itzultzaileak hartu dituen erabakiak. Aleman estandarra eta Berlineko kaleko hizkera bereizteko, hitanoa erabiltzen du kaleko hizkera hori islatzeko, eta *txispa* guztiak ateratzen dizkio; alegia, euskaraz erregistro diferenteak erakusten dituen ariketa bat egiten du, hizkuntza estandar eta dialekto izan daitezkeen batzuekin nola jokatu erakusten duena. Batzuetan, akaso, gaztelaniazko bertsioan baino zailtasun gutxiagorekin, edo zailtasun berdinekin baina igual emaitza hobea ere lortzen dituen. Gaztelaniazko bertsioa Miguel Sáenzena da, alemanetik gaztelaniara itzultzen duen itzultzaile seguruenik handiena; izugarritzko itzulpenak ditu. Berak aipatu izan du behin baino gehiagotan zeinen zaila egin zitzaion hori, liburuaren zati handi bat berlineraz dagoelako idatzita. Horrek gaztelaniaz sortuko ditu arazo batzuk. Euskaraz, Antton Garikanok modu hori asmatu zuen, eta ikaragarri ondo irakurtzen da liburu.

Irene Aldasorok gauza bera egin zuen *Gailur Ekaiztsuak*-en. XIX. mendeko nobela bat da; alegia, klase sozialak ikaragarri be-

reizita dauden hizkera batean idatzita dago. Liburuko pertsonaietako bat, zerbitzari bat, ia-ia goierrieraz hitz egiten jartzen du, eta ikaragarri ondo funtzionatzen du. Horrek ez du esan nahi beti hori egin behar denik, baina idazten ari den pertsona batentzat, horiek guztiak baliabideak dira; asmatuta daude gauza asko eta asko. Hizkuntzaren beraren zenbait kontu ez aipatzeagatik –erlatibozkoek sortzen dizkiguten arazoak euskarazko itzulpenetan nola dauden konponduta, eta abar–. Askotan, sortutako lanetan gauza batzuk ikusten dituzu eta pentsatzen duzu: «Hau aspaldi asmatu zen».

Ikasteko modu bezala, bai itzultzaileen-tzat, bai idazleentzat, nire ustez, itzulita dagoen masa ikaragarri lagungarria da. Irene Arraratsek, adibidez, gogoratzen naiz behin kontatzen zidala –berak Simone de Beauvoirren *Bigarren sexua* itzuli du– lan hori bakarka egiten hasi zela, argitaratzeko inolako asmorik ez zeukanean, ariketa modura. Hori ere egiten du itzultzaileak, eta hori ere egin dezake idazle batek. Seguruena, ez dago ikastarorik hori baino gehiago erakusten dizunik. Alde horretatik, bai itzultzaileek bai idazleek kontuan eduki beharreko zoezer da. Material bat dago itzulpenetan baliatu daitekeena, ikusteko beste batzuek zer egin duten eta, beraz, zer egin dezakezun; eta sortzaile batek berdin-berdin, ikusteko zer baliabide dituen. Baina, egiten den edo ez, ez dakit, egia esan.

ITZIAR DIEZ DE ULTZURRUN: Isabel, zu aritu zara eta aritzen zara corpusak erkatzen, ezta? Zorrozte horrekin zerikusia duen zer-bait gaineratu nahi duzu?

ISABEL ETXEBERRIA: Anjel Lertxundi-*ren Itzuliz usu begiak* lanean nagusi den ideia hori. Badut gogoan aspaldiko zita bat, laurogeita hamagutxikoa, *Jakin* aldizkarian atera zena, eta oso ondo adierazten du ideia hori paragrafo bakar batean. Itzultzaile batek duen exijentzia-maila kanpotik ezarrita dago; jatorrizko testua hor dago, hori eman behar du. Besteek ere jakin dezakete zein zen abiapuntua, eta erraz konparatu ahalko dute asmatu duen edo ez. Idazlearen kasuan –eta horrela esaten zuen Lertxundik–, inork ezin du jakin zer zuen buruan eta zer idatzi duen azkenean. Burutik eskurako bide horretan zer galdu den inork ez du jakingo. Idazlearen kasuan, autoexijentzia da, bere buruari ezartzen diona –ez dut esan nahi idazleek alferkeriaz jokatzten dutenik, inondik ere ez–. Hizkuntza gutxituen kasuan, non hizkuntzak beste hizkuntza handien ibilbide bera egin ez duelako plastizitatea edo muskulua galdu duen, baliabideak badi-tuen baina nolabait ahanzturan geratu diren hiztegieta eta ohitu garen betiko lau baliabideekin funtzionatzen, are nabarmenagoa da itzulpenaren bitartez ekarpen asko iritsi daitezkeela. Beharbada, hizkuntza handiangoetan, itzulpena izan daiteke, modu nabarmenagoan, bizioak eta kalkoak sartzeko modu bat.

Nire tesia dela eta, oso kurioa egiten zait inoiz gaian aditua ez den norbaitekin hitz egiten dudanean eta ikergaia zein dudan galdetzen didanean –euskaraz sortutako testuak eta euskarara itzultitakoak konparatzen ari naiz, ea ezberdintasunik badagoen ikusteko–, lehen erreakzioa beti izaten dela: «Noski, itzulpenetan kalko eta akats asko egongo dira». Nire hipotesia *a priori* kontra-

koa da, hain justu. Jatorrizko testuetan –eta beharbada literatura-testuak izateagatik testuingurua beste bat da–, akats gehiago egon ohi dira.

Gaineratu nahiko nuke Anjel Lertxundik gogoeta hori egiten duenean, eta zuek ere hori aipatu duzue, hizkuntza aldetik oso baliagarria dela itzultzea, baina baita literarioki ere. Alice Munro itzuli bitartean –oso Munrozalea nintzen lehenagotik ere, eta oso gustura irakurri dut–, topiko hori zetorkidan burura: itzultzea dela irakurtzeko modurik onena. Orduantxe ikusten nuen hainbeste testu azpiko hari daudela, ipuinari batasun bat ematen diotenak, loturak sortzen dituztenak. Horiek itzuli ahala ikusten nituen, eta nire esaldia beti zen: «Ze kabroia Munro, begiratu oraingoan ere nola egin duen». Ez bakarrik hizkuntza aldetik; itzultzea oso tresna baliagarria iruditzen zait beste patxada eta arreta batekin irakurtzen duzulako. Idazleak erabili dituen baliabide guztiak ikustera iritsi gabe, agian, baina askoz patxada handiagoa irakurtzen dituzu.

ITZIAR DIEZ DE ULTZURRUN: Ederki. Orain uea iritsi da giltza zertarako erabiltzen ari garen aipatzeko. Nondik ari gara itzultzen? Zer hizkuntzatatik? Zer egile mota euskaratzen ari gara? Zer garaitakoak? Zer genero ari gara itzultzen gehienbat? Uste dut azken urteotan aldaketak gertatu direla. Beñatek ongi daki, berak baitu Munduko Poesia Kaiaren ardura. Uste dut horrek sekulako ekarpena egin duela, eta poesia-itzulpenak ikaragarri egin duela gora, batez ere bilduma horri esker. Horrek erakusten du horrelako ekimenak zer baliotsuak diren. Gogoea hori eskatu nahi dizuet. Iruditzen zaizue

ate egokiak irekitzen ari garela? Oraindik ere ingelesetik gehiegi itzultzen ari ote gara? Edo hizkuntza handi batzuetatik? Europako egile gehiegi eta beste munduko bazterretan egiten denari gutxiegi begiratzen al diogu? Narratiba gehiegi?

IDOIA SANTAMARÍA: Kanonaren auzia korapilatsu samarra da. Egia da pixkanaka kanona zabaltzen ari dela eta Munduko Poesia Kaiaretan nabarmena dela zabaltzeko ahalegin hori, eta eskertzekoa. Literatura Unibertsaleko bilduman ere ari dira pixkanaka saio horiek egiten, eta uste dut txalogarriak direla. Hala ere, uste dut kontuz ibili beharke genukeela exotikotasunaren mende ez erortzeko. Lehengo batean, adibidez –zuk [Itziarrek] aipatu duzu–, Pello Lizarralde, Hitzen Uberan-en egiten zioten elkarriketan, aipatzen zuen zeozer zeinarekin oso konforme nagoen. Esaten zuen tristea dela gero afrikar idazle baten eta kultura afrikarreko idazle baten lana ez ezagutzea, baina Mendebaldeko zenbait lan gaur egun ere oraindik guretzat guztiz ezezagun izatea euskaraz –bera Ginzburg aipatzen ari zela uste dut– are tristeago iruditzen zitzaion, kontuan izanda gure kulturatik eta egunerokotik zer gertu dagoen.

Egia da kanona zabaltu beharke genukeela, baina ez dut uste horrekin itsutu behar dugunik, badirudielako Mendebaldetik datorkiguna edo etor litekeena ekarria daukagula, eta gauza pilo bat falta zaizkigu. Lizarralde aipatutako kontu batzuekin ados nago; Erdialdeko Europan, adibidez, gauza asko eta asko daude zeinen berri oraindik ez daukagun inondik ere. Ez bakarrik alemanetik, Eslovenia, Balkanak... gauza pilo

bat daude ezagutzen ez ditugunak. Uste dut tradizio hori ere oso gertukoa dugula, eta oraindik ere hor dagoela. Kanona zabaltzearen aldekoa naiz, noski, baina ez nintzateke kuotatan sartuko.

ISABEL ETXEBERRIA: Asko pozten naiz zuri hori entzunda, Idoia. Ni ere bat nator: mutur batetik besterakoan ibili gabe oreka bilatzea oso garrantzitsua da. Aprobetxatu nahiko nuke zubi-hizkuntzen alde inoiz egin ez dudana aldarri bat egiteko. Egia da ingelesak pisu ikaragarria duela eta, azkenean, itzulzaileak garenak garela, ezagutzen ditugun hizkuntzak ezagutzen ditugula eta horietatik itzultzen dugula. Hori ez litzateke arrazoa izan beharko hizkuntza gutxi batzuetara mugatzeko. Zubi-hizkuntzen erabilera beste hizkuntza gutxiagotu batzuk –exotismoan erori gabe– ezagutzeko oso baliagarria da, eta uste dut tresna bat dela, nahiz eta halako erreparoa dugun aitortzeko zubi-hizkuntza batetik –edo bitatik, edo hirutatik– itzulita egin dugula. Gure errealitatean (zenbat hiztun garen, zenbat itzulzaile garen...) oso tresna baliagarria izan daitekeela iruditzen zait.

BEÑAT SARASOLA: Kanonarena, Idoiak esan duen bezala, nahiko gai konplexua da, eta nik uste dut poztekoa dela azken urteetan egon den saiakera pixka bat zabaltzeko. Munduko Poesia Kaietretan neurri batean ikusten da, nahiz eta bere mugak izan. Afrikako literaturarik, adibidez, oraindik ez dugu itzuli... Muga handiak ditu. Mugak denetariakoak dira, kulturalak, ezagutzakoak... Eta horretan, hain justu, Isabelekin bat nator:

zubi-hizkuntzak ezinbestekoak dira hizkuntza eta kultura horietara iristeko.

Baina, berriz ere, literaturazaletasuna eta literatura zentroan jarrita, uste dut arazo bat dugula gehienok Mendebaldeko kanona ere ez dugulako ezagutzen, ezta literatura-zaleek ere. Mendebaldeko kanona ez dira Shakespeare, Cervantes... Askoz ere zabala goa da. Mila bide, mila zirrikitu, elkarrekin oso ezberdin diren mila kultura daude. Askotan iruditzen zait hori ahaztu egiten zaigula, hau da, norbait kokatzen dugula Mendebaldean edo Europako literaturatan eta, automatikoki, Mendebaldeko kanoneko gainontzeko idazleen pare jartzen dela. Hori ez da inolaz ere horrela. Adibide bat jartzearen: literatura anglosaxoian dezente lan egin denez, XIX. mendeko emakumezkoen nobelagintzak izugarritzko indarra du, baina ezin duzu hori konparatu Mendebaldeko kanoneko gainontzeko beste bideekin. Nik uste dut horretaz ere konturatu behar garela, hau da, kulturak ere beraien barruan oso konplexuak direla, eta askotan, Idoiak esaten duen moduan, pixka bat erridikulua izan daitekeela planetako ez dakit zein bazterretara ez dakit zein idazleren bila joatea, gertuago beste ñabardura batzuetako literatura daukazunean eta igual sarbidea errazago duzunean hizkuntzen bidez, ezagutzen bidez, eta abar. Munduko Poesia Kaietretan, adibidez, askotan muga hori ere izaten dugu. Zaila zaigu iristea, eta ez hizkuntzarengatik, baizik eta kulturalki ere saltoa handia izan daitekeelako Asiako ez dakit zein kultura eta gurearen artean. Ez dago, gainera, gure artean hainbeste jende hori egiteko gai denik. Gure gabeziak hor ere islatzen dira, eta uste dut onartu beharko genituzkeela. Horrega-

tik aipatzen nuen inportantea dela Mendebaldeko kanona –modu zabalean ulertuta– ez ahaztea. Literaturazaletasunaren eta literaturaren ikuspuntutik, sekulako balioa dago, eta, bide batez, oso bazterrekoak ditugun beste literatura askok ere hortik edaten dute. Idoiarekin bat nator horretan.

ITZIAR DIEZ DE ULZURRUN: Iñigo Satrustegik azken *Senezen* argitaratutako artikuluan ematen dituen datuak ditut. Uste dut lasai egon gaitzkeela; Europako herrialderen batean sortutakoak dira azken hamar urteetan itzuli ditugun lanen % 60. Berriki arte beste bazterretatik itzuli ez dugunez, orain ez ote zaigu iruditzen sobera lerratu garela? Agian ez da hain larria kontua, eta ingelesetik ere asko itzultzen da oraindik, munduko literatura-sistema guztietan bezala.

BEÑAT SARASOLA: Horretan uste dut aurrerapauso handiak eman direla. Duela hamarkada batzuk gehienbat gaztelaniatik itzultzen zela esango nuke. Gaur egun ingelesetik itzultzeak bidea ematen dizu planetaren zati handi batera iristeko.

ITZIAR DIEZ DE ULZURRUN: Zubihizkuntza moduan baliatuta. Mahai-inguruan aipatu dugunez itzulpena giltza dela ez bakarrik mundua ekartzeko, baizik eta munduaren plazara ateratzeko, esportatzen ari garenari buruz hitz egitea nahiko nuke. Zer iruditzen zaizue? Aski itzultzen ari ote gara euskaraz jatorriz sortutako testuak? Egiten diren itzulpen horietako gehienak segur aski gaztelaniara itzultzen dira. Zer abantaila dauzka horrek? Eta zer muga? Zer

idazle ari gara gehiago itzultzen? Edo autoitzultzen? Euskaraz sortutakoa berehala gaztelaniaz edo frantsesez izateko aukerak zer ekartzen dio euskarazko irakurzaletasunari? Zer kentzen dio?

IDOIA SANTAMARÍA: Nik alde ona ikusten dut, baina baita arriskua ere. Alde ona euskaratik gaztelaniarako bidean agerikoa da: hemen egiten dena ahalik eta gehien ezagutarazi beharko genuke. Ez dugu ezer lortzen gure artean hori gordetzen. Kontua betikoa da, beti dago infrentzua; alegia, hemen bizi garen guztiok elebidunak garenez, gutxienez, aurrez jakiteak euskaraz idazten ari zaren hori gaztelaniara itzuliko dela, zenbateraino baldintzatzen du zure euskarazko sorkuntza? Zenbateraino moldatzen duzu hori gero gaztelaniaz irakurgarriago izan dadin? Irakurgarriago ez hizkuntza aldetik, baizik eta kontatzen ari zaren hori.

Saio hori egin behar da; beste kontu bat da hori zeinek itzultzen duen. Kasu batzuetan sortzailea bera izaten da; batzuek horren alde egiten dute; beste batzuek ez dute ezer jakin nahi; nahiago dute beste batek egitea. Garbi dago pauso hori eman behar dela Euskal Herrian bizi baina euskaraz bizi ez direnei –eta, beraz, euskaraz irakurtzen ez dutenei– euskaraz sortzen den produktua erakusteko. Bide horretan, gainera, norbaitek best-sellerra lortzen badu, primeran. Baina ez dakit batzuetan ez ote garen pixka bat azeleratzen nahi horretan: alegia, gu oso txikiak gara; beraz, korrika atera behar dugu kanpora, ea gure lana kanpoan balioztatzen duten. Behar hori ikusten dut, baina aldi berean arrisku hori. Gaztelaniak –edo frantsesak– eman behar digu bedeinkazioa.

Ez dakit horrek zenbateraino baldintzatu dezakeen euskaraz sortzen duen pertsona baten lana.

BEÑAT SARASOLA: Nire kasuan hasieratik nuen gaztelaniara itzultzeko nahia. Ez nik –neure burua itzultzea sekulako tortura izango litzateke–, nahiago dut itzultzaile batek itzultzea; hizkuntzaren ezagutza handiagoa izango du nik baino. Dena den, ez dakit publikatuko den edo ez. Beste kasu bat litzateke –Atxaga baten kasuan, edo nik zer dakit– bere lana gaztelaniara edo beste hizkuntza batzuetara berehala itzuliko dela dakienek norbaitena. Gai interesgarria da. Honi buruz esan nahiko nuke itzultzen denean kontuan izan behar dela literatura-sistemak nola funtzionatzen duen. Garazi Arrularen tesian aipatzen da euskal idazleak Espainiako merkatuan itzuli eta aurkezten direnean joera omen dagoela itzulpen bat dela moztzeko eta idazle horiek benetan erdaraz idatzi izan balute bezala aurkezteko.

Alde batetik, itzulpenaren kontrako aurreiritzia dagoela uste dut, eta, horrekin lotuta, autoitzulpenerako joera –Atxagaren kasua, adibidez, bere burua itzultzeko eta bertsionatzeko joera izan baitu–. Euskal idazleak ia-ia espainolez idatziko balute bezala aurkezten dira. Nahiko esanguratsua da merkatuaren ikuspuntutik joera hori horrela izatea. Gaztelaniarekiko morrontza handia dago itzulpenean, eta oso saiakera gutxi egin dira –behintzat emankorrek izan direnak– bide horretatik kanpo beste bide bat irekitzeko, ez dakit, frantsesez, ingelesez... zuzenean itzulita. Uste dut hor gabezia handia dagoela, baina ez dakit zer puntutaraino errealista den beste bide horiek etorkizun

batean posible izango direla pentsatzea. Bizi garen testuinguruan bizi gara, eta, gaztelania hor egonda, logikoagoa edo errazagoa da gaztelaniara itzultzea.

Nahiz eta gauza bat den Euskal Herrian bertan euskaraz irakurtzen ez dutenentzat itzultzea, eta beste bat da Espainia eta, are gehiago, espainolez hitz egin eta irakurtzen duten munduko herrialdeetara iristea. Pello Lizarralde aipatu da, baina Pello Lizarralderen lanen bat itzuli izan da gaztelaniara, eta berak hobetsi izan du Euskal Herriko kanporako irakurleengana iristea; ez zaio oso logikoa iruditzen Euskal Herriko bertako erdaldunentzat itzultzen ibiltzea. Uste dut hori ere beste ikuspuntu interesgarri bat dela. Beste kultura eta lurralde batzuetara iristeko desira duzu, baina zer puntutaraino dauka zentzua zure herrikeri batek irakur zaitzan horrelako itzulpen-lan batean sartzeak? Nik ere zalantzak dauzkat.

ISABEL ETXEBERRIA: Ez ondokoarentzat soilik, kanpora itzultzen denean ere, niri askotan zalantza sortzen zait: zer argitalpen mota dira? Non saltzen dira? Non argitaratzen dira? Zer argitaletxe motatan? Askotan ez ote dira oso zirkuitu akademikoetarako egiten? Poloniako irakurle arrunt batek, esaterako, nola hartuko du polonierara itzulitako euskal idazle baten obra bat? Gu kanpora joaten garenean exotismotik saltzen ote gaituzte? Eta, benetan, zer posibilitate dugu erakusleihen batean hizkuntza hegemoniko baten obraren ondoan euskal idazle baten obra etiketa gabe ager dadin? Ez dakit nola saltzen den gure literatura, agian ezjakintasunetik ari naiz hitz egiten. Beharbada ez da hori kasua, baina beldur naiz batzuetan exo-

tismo horretan ez ote garen erortzen gu ere gurea kanpoan saltzen dugunean, eta horrek benetan mesede egiten ote digun.

ITZIAR DIEZ DE ULTZURRUN: Azken galdera botako dut. Liburu edo autore bana aukeratzeko eskatuko dizuet. Zer ikusi nahiko zenukete euskaraz? Zer testu, zer lan, zer olerkari, zer genero...? Eta euskarazko zer testu ikusi nahiko zenukete erdararen batean?

ISABEL ETXEBERRIA: Amos Oz, israeldarra. Behin Literatura Unibertsalerako hautagaien artean egon zen; nik orduan ezagutu nuen. *The Black Box* izeneko nobela bat zen orduko deialdian aurkeztu zutena. Genero epistolarrekoa da, gainera. Itzultzaile baten-tzat kapritxo bat dela iruditzen zait; tonua asko aldatzen da gutun batetik bestera, eta ikaragarria iruditu zitzaidan horrelako bor-txa biltzea nobela hartan. Ez dakit nobelagatik edo kultura-aldeagatik ote zen, baina ikaragarria iruditu zitzaidan.

IDOIA SANTAMARÍA: Nik Stefan Zweig ikusi nahiko nuke. Badaude bere bi lan Igelan argitaratuta: *Hogeita lau ordu emakume baten bizitzan* eta *Emakume ezezagun baten gutunak*. Bada Zweigen liburu bat, bere buruaz beste egin baino pixka bat lehenago bukatu zuena; erdaraz Acantilado-n dago, *El mundo de ayer: memorias de un europeo* izenburuarekin. Ikaragarri gozatuko nuke –sufritu ere bai– liburu hori itzultzen. Iruditzen zait eskoletan ere irakurri beharko litzatekeen liburu bat dela, gaur egungo egoera politiko-soziala zein den kontuan hartuta. Bigarren Mundu Gerraren hondamendiaren ingu-

ruan idatzi zuen, eta uste dut izugarritzko liburu bat dela. Euskaraz ikusi nahiko nuke.

BEÑAT SARASOLA: Ondo iruditzen bazaizu, bi esango ditut. Batetik, itzulpen ezinezko-tzat jotzen den liburu bat: James Joyce-ren *Finnegans Wake*. Diotenez, itzultzea ia ezinezkoa den liburu bat da, eta uste dut berriki, lehenengo aldiz, gaztelaniaz osorik argitaratu dela. Xabier Olarra edo holakoren bat animatzen bada... Gero, Virginia Woolfen *The Waves*. Nobela oso berezia da; bakarrizketa luze samarrak eta konplexuak ditu, lau pertsonaiaren arteko kontuak kontatzen ditu, baina, era berean, baditu horrelako *entradilla* deskriptibo oso eder batzuk kapitulu bakoitzean, oso ederrak. Asko maite dudana nobela bat da, eta gustatuko litzaidake euskaraz egotea.

ISABEL ETXEBERRIA: Horretarako Itziarri egingo diogu gonbidapena (kar-kar). Lizarralderen liburu bat erdaretara itzulita ikustea gustatuko litzaidake.

IDOIA SANTAMARÍA: Nik nahiko nuke ikusi nola funtzionatzen duen Saizarbitoriaren batek ingelesez; *Martutenek* berak, adibidez.

ITZIAR DIEZ DE ULTZURRUN: Beñat?

BEÑAT SARASOLA: Ez dakit, asko. Azken urteetan itzulia ez dagoenaren artean, Mikel Perurenaren *Su zelaiak*. Gainera, gaia ere oso europarra denez, Lehen Mundu Gerran kokatua, gustatuko litzaidake liburu hori European –Frantzia, Alemanian-eta– nola irakurriko litzatekeen ikustea.

ITZIAR DIEZ DE ULZURRUN: Ba ea laster itzulpen horiek eginak ikusteko aukera dugun. Eta, gure aldetik, besterik ez. Mila es-

ker etortzeagatik, eguraldi petral hau dugula eta gainera segurtasun neurri zorrotz hauekin... Hurrengo arte, mila esker.

Resumen

En la cita anual del festival literario *Literaturia*, EIZIE coorganizó una mesa redonda, que tuvo lugar el 26 de septiembre de 2020 en Zarautz: «Itzulpengiltza: mundura zabaltzeko eta mundua ekartzeko». En el coloquio, moderado por Itziar Díez de Ultzurrun, participaron Isabel Etxebarria, Idoia Santamaría y Beñat Sarasola, y en estas páginas recogemos sus reflexiones acerca de la importancia de la traducción en el sistema literario vasco.

Résumé

Le 26 septembre 2020, Isabel Etxebarria, Idoia Santamaría et Beñat Sarasola participaient à Zarautz, à la table ronde organisée par EIZIE lors du festival littéraire *Literaturia*. La table ronde modérée par Itziar Díez de Ultzurrun s'intitulait : La traduction, ou comment s'ouvrir au monde dans un voyage aller-retour. On y abordait l'importance de la traduction dans le système littéraire, et le présent article recueille les réflexions de cette table ronde.

Abstract

On September 26, 2020, Isabel Etxebarria, Idoia Santamaría and Beñat Sarasola gathered in Zarautz to participate in a round table entitled "Translation: key to the world" and moderated by Itziar Díez de Ultzurrun. The round table was organized by the *Literaturia* literary festival and EIZIE. The participants discussed the importance of translation in the Basque literary system, and we report their reflections in these pages.